


## Beirazko kanpaia Sylvia Plath



Uda arraro eta sargoria zen, Rosenberg senar-emazteak elektrokutatu zituzten uda, eta nik ez nekien zer ari nintzen New Yorken. Exekuzioek ergeldu egiten naute. Deskarga elektrikoz hiltzearen ideiak ondoezik jartzen nau, eta ez zen beste hitzik egunkarrietan: titularrak begi arranpalo zelatan kale-kantoi guztietan. Ez zuen nirekin zerikusirik, eta hala ere buruan etengabe zebilkidan zer-nolakoa izanen zen bizirik erretzea, goi eta behe.

Munduko gauzarik txarrena izan behar zuen.

New York bera desatsegin samarra zen. Goizeko bederatzietarako, gauean nolabait iragazitako freskotasan landatar faltsu hura lurrundu egiten zen amets gozo baten hondarraren antzera. Gris-urdinak granitozko arroilen hondarrean, kale beroek

eguzkia erakartzen zuten, autoen gainaldeak galdatan eta dizdizka, eta ke lehor errautsua hegan sartzen zitzaidan begietan eta eztarrian.

Rosenbergtarrei buruzkoak entzuten jarraitu nuen, irratian eta bulegoan, burutik uxatu ezin izateraino. Hildako bat lehenengoz ikusi nuenean bezalaxe. Hurrengo asteetan, hildakoaren burua -edo haren hondakinak- gosaritan aireratzten zitzaidan, arrautzen eta hirugiharraren atzean eta Budy Willarden aurpegiaren atzean, berea baitzen nik hura ikusi izanaren ardura, eta luze gabe iruditu zitzaidan hildakoaren burua neramala gainean, ozpin kirasdun puxika beltz sudurgabe.

Banekien uda hartan ez nebilela neure on-onean, rosenbergtarrei gertaturiko bako bako ez bainuen buruan, eta orobat zeinen ergela izan nintzen jantzi desoroso eta garesti haiek guztiak erositara, arrainen gisan maxkal zintzilik orain nire armairuan, eta nola institutuan hain pozik pilaturiko arrakasta txiki oro ezerezean geratzen zen Madison etorbideko marmol zaindu eta leihate zabaleko fatxaden aurrean...

*Liburuaren zatia*

### ESTEKAK

\* <https://ekarriak.armiarma.eus/?i=602>

\* <https://www.diariovasco.com/culturas/libros/beirazko-kanpaia-dendena-20220305175307-nt.html>

\* <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/arratsean/oso/8885430/garazi-arrula-sylvia-plath-beirazko-kanpaia-eleberriaz-arratsean-euskadi-irratian/>


LIBURUTEGIA  
TERTULIAK  
EUSKARAZ 2023



# Sylvia Plath

DOSSIERRA

## Beirazko kanpaia



TERTULIA

2024/01/25

18:30 - 20:00

Nerea Loiola  
dinamizatzailea



1932 Boston (AEB) - 1963 Londres (Ingalaterra)  
Zortzi urterekin argitaratu zuen lehen poema, aldizkari batean. Ordutik aurrera, ez zion argitaratzeari utzi, eta sari andana jaso zuen gaztetarik. Bereziki ezaguna da bere obra poetikoa, irudi zorrotz eta bortitzez bete, nahiz eta bizi artean bi liburu baizik ez zituen argitaratu: **The Colossus and Other Poems (1960)** poema-bilduma eta, ezinez, **The Bell Jar (1963)** eleberria hain zuzen. Poesia konfesionala esaten zaion joeraren barrenean kokatzen da, Anne Sexton eta Allen Ginsberg estatubatuarren eta Alda Merini italiarrarekin batera, beste batzuen artean. Idazle izateaz gainera, Cambridgeko unibertsitatean irakasle izan zen, Ted Hugh senar eta poetaren editorea eta bi umeren

ama. Hogeita hamar urte zituela, bere buruaz beste egin zuen. 1982an, hil ondorengo Pulitzer saria eman zioten *The Collected Poems* lanagatik.

## Sariak

**Fulbright scholarship, Glascock Prize (1971)**

**Pulitzer Saria “The Collected Poems” lanagatik (1982)**

<https://www.txalaparta.eus/eu/liburu-denda/egileak/sylvia-plath>

## Poeta martiriaren narratiba Hasier Rekondo / Deia, 2023-03-04

Sylvia Plath-en (Boston, AEB, 1932- London, Ingalaterra, 1963) nobela bakarraren gainean zaila da oso bereiztea non hasten den fikzioa, non errealitatea, eta non, kezagarria dirudien arren, aurre-ikusmena. Plathek 1961ean idatzi baitzituen Beirazko kanpaiaren pasarterik gehienak; epealdi berean idatzitakoak dira, halaber, haren poemarik onenak. Ariel liburu gogoangarria lekuko. “Maitasunak giltza eman zizun erloju mazizo bati bezala”.

Plathen literatura iruzkintzean, zoritxarrez eta zorionez, askotan ezin dira bereizi literatura eta errealitatea, historia pertsonal tragikoaren oihartzun demasezkoak literaturari

berari itzal egiten baitio. Poesiarako izugarritzko talentuaren eta gaitz bipolar baten artean dagoen eremu ez lurtarrean mugitzen baitzen idazlea. Nobelari dagokionez, opera prima eta azken honetan, ez baitzen izango besterik argitaratu eta hilabete batera suizidatu baitzen, Esther protagonistari gertatutako zenbait bizipen, iraganean eta gerora, bizitza errealean bizi eta biziko zituzten Plath-ek berak edo haren ondokoek.

Ted Hughes poeta laudatuaren bikotekide Plath-ek bere buruaz beste egin zuen Londoneko apartamentuan labearen buruan sartuta, bigarren umea erditzearen eraginezko depresioaz gain, Hughes-ek eta bikotearen lagun eta poeta Assia Wevill-ek maitasun afera zutelakoaren susmopean. Zenbait urte geroago, Wevill-ek berak ere suizidioaren bidea hartuko zuen, hark bere umea bidaide hartuta. Beldurgarria bada ere, nobelan, Estherren zoroetxe-lagun Joanek ere hautu hori hartu zuen, bai Estherrek bai Joanek amorante bera dute nobelan: Buddy Willard. Nobela amaieran, Willardek galdera inoza gaztigatuko dio Estherri: Uste al duzu emakumeak zorutzen ditudala? Ted Hughes bera mintzo al da, bigarren suizidioa gertatu baino askoz lehenago?

Literatura etorrira, liburuak erantzun epela jaso zuen bere garaian kritikaren aldetik, Plath-ek narratzailearen ustezko indar faltaren kariatara. New Yorken emakumeen aldizkari batean lan egiten duen ikasle bekadun baten bizipenak eta haren gainbehera narratzen da nobelan. Beirazko kanpaiaren metafora darabil Plath-ek, Esther munduaz babesteko tresna gisa. Egia da, naftasunaren ajeak jota daudela lehen begiratuan zenbait gai, baina bere garairako planteatzen zituen gauzak ez ziren ahuntzaren gauerdiko ez tula, oraindik orain eztabaidagai baitira gurean: maitasunaren lokarriak, emakume aske eta aldi berean gatibu baten hastapenezko ikaspena, abortua, amatasuna, suizidioa, heriotza, poeta izateko grina geldiezina, gaixotasun mentalaren alde ilunak eta sortzaileak, sexuaren eta maitasunaren arteko bidezidorrak... Kritikaren epeltasunak gorabehera, talentu, ironia eta malenkonia existentziala ezin hobeto uztartu zituen, autofikzioaren garaiak ere iragarri.

Garazi Arrulak fin eta distiraz itzuli du irudiz betetako Plath-ek prosa poetikoa, izan ere, Bostongo idazleak lehenetsi egiten baitu eszenaren gaineko deskribapen kaleidoskopikoa. Itzulpenaren zehaztasun neurtuak mesede egiten dio patuari aurre hartu nahi izan zion eleberri poetikoari.

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8740>